

36 urte

Minbiziaren

Aurka

Gipuzkoan



# KAIXO!

## MINBIZIAREN AURKA GIPUZKOAN

1. Nor gara
2. Non gaude
3. Gure zerbitzuak
4. Zergatik lagundu gure elkarteari
5. Nola lagundu

# Minbiziaren Aurka Elkarteak

A thick blue line starts horizontally from the left edge of the slide, then curves upwards and to the right, forming a rounded peak, then drops vertically down, and finally curves back to the right, ending at the right edge of the slide.

**Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, 1987an sortua.**

Elkarteak minbizia duten pertsonak, familiak, boluntarioak eta profesionalak biltzen ditu, pertsonen bizitza hobetzeko helburuarekin lan egiten dutenak.

52 probintzietan dago presente.

**Nortzuk gara  
Minbiziaren  
Aurka  
Gipuzkoan?**





## BAZKIDEAK

**16.012** pertsona  
bazkideak

## BOLUNTARIOAK

**646** pertsona  
boluntarioak

## IKERKETA

Gipuzkoak **4,2 milioi euro** bideratu ditu hainbat **ikerketa-proiektutara**

## IBILBIDEA

**36** urteko  
ibilbidea

# Minbiziari ikuspegi integral batetik heltzen diogu Gipuzkoan



**7** egoitza ditugu eta honako zerbitzu hauek eskaintzen ditugu:

Arreta psikologikoa



Haurren eta gazteen laguntza  
psikologikoa



Gizarte-arreta



Bio arreta



Prebentzioa



Boluntarioria



# Gure zerbitzuak

Zerbitzu guztiak doakoak dira, bazkide izan ala ez

## Arreta psikologikoa

**Psiko-onkologoek banakako eta taldeko saioak eskaintzen dizkiete paziente eta senideei. Gai hauek jorratzen dituzte, besteak beste: hasierako diagnostikoa, tratamenduaren bilakaera eta dolu prozesua.**

### Nola?

- Banakako eta taldeko terapiak pazientearekin eta senideekin.
- Haur eta gazteak: Minbizia dutenen senitartekoak dituzten adingabeentzako arreta.
- Dolu taldea.
- Zaintzailea zaintzeko tailerra.
- "Gabonak eta zu falta zara" tailerra.
- Memoria-tailerra.
- Aspanogirekin batera tailerra " Nola lagundu adingabeei bizitzaren amaieran eta senide baten doluan".



# Gure zerbitzuak

Zerbitzu guztiak doakoak dira, bazkide izan ala ez

## Gizarte laguntza

Gizarte-langileek pazienteei laguntzen diete, balorazio integrala eginez, helburu biopsikosozialak ezarriz eta etengabeko jarraipena eginez, elkarteko gainerako profesionalekin koordinatuta

### Nola?

- Laguntza ekonomikoen kudeaketa.
- Desgaitasun-prozesuetako laguntzak kudeatzea.
- Donostiako harrera-etxea kudeatzea.
- Lan-aholkularitza.
- Material ortopedikoaren maileguen kudeaketa.
- Gizarte eta osasun arloko erakundeekin koordinatzea.
- Etab.





# Gure zerbitzuak

Zerbitzu guztiak doakoak dira, bazkide izan ala ez

## Bio arreta

Erizaintzaren, nutrizioaren eta ariketa fisikoaren bidez, pazientearen osasun-egoera hobetzeko jarraibide pertsonalizatuak proposatzen dira.

### Nola?

- **Erizaintza:** Nutrizioko, erizaintzako eta ariketa fisikoko lantaldearekin lantzen diren osasun-beharren balorazio zehatza prestatzen du.
- **Ariketa fisikoa:** Bizi-kalitatea hobetzera, albo-ondorioak murriztera, biziraupena handitzera eta tratamenduekiko tolerantziarik onena erraztera bideratutako lan-plana proposatzen du.
- **Nutrizioa:** Prozesu onkologiko osoan zehar nutrizio-egoera hobetzeko eta elikadura-ohitura osasungarrietan hezteko jarraibide dietetiko pertsonalizatuak proposatzen ditu.



# Gure zerbitzuak

Zerbitzu guztiak doakoak dira, bazkide izan ala ez

## Prebentzioa

**Prebentzioko psikologoek lehendik ezagunak diren eta azaleratzen ari diren minbizien intzidentzia murrizteko hainbat ekintza inplementatzen dituzte, haien ikuspegia adin-tarte desberdinetan egokituz.**

### Nola?

- Tabakoa erretzeari uzteko banakako eta taldeko saioak.
- Haur eta nerabeentzako bizi-ohitura osasungarriak sustatzea. Besteak beste, koloneko minbizia, azaleko minbizia eta tabakismoa prebenitzeko kanpainak.
- Kerik gabeko guneak sustatzea.
- Sektore arteko mahaietan parte hartzea.
- Etab.



# Gure zerbitzuak

Zerbitzu guztiak doakoak dira, bazkide izan ala ez

## Boluntariotza

**Boluntarioen koordinatzaileak boluntario berriak hautatu eta prestatzen ditu, boluntariotza mota guztietako taldeak kudeatzen eta koordinatzen ditu, eta boluntarioei laguntzen die elkartearen ibilbide osoan.**

### Nola?

- Boluntario batzuk batzordeetako gobernu-organoetako kide dira.
- Pazienteei eta senideei ospitaleetan eta etxeetan laguntzea.
- Prebentzio-kanpainetan eta ekitaldietan bolondres gisa parte hartzea, baliabideak lortzea, difusioan laguntzea, diru-bilketa antolatzea.
- Zientziaren aldeko boluntarioak.
- Paziente eta familiartekoentzako aisialdi-tailerrak ematea.
- Etab.



Zergatik  
Lagundu  
Elkarteari?



# Zergatik lagundu

- **Zumarragan dugun egoitza ezagutarazten laguntzeko.**
- **ESKn eta erakunde-balioetan oinarritutako marka-balioa sortzen du.** Lankidetzak enpresaren irudia indartu dezake, Erantzukizun Sozial Korporatiboarekin duen konpromisoa eta funtsezko balioak erakusten baititu.
- **Goierri Kopa Trailen posizionamendua hobetzea.** Beste erakunde batzuekin batera lan egiteak enpresaren ikusgarritasuna eta ospea areagotu dezake.
- **Langileen, boluntarioen eta parte-hartzaileen pertenezia-sentimendua hobetzen du.**
- **Langile eta parte hartzaileen artean bizi-ohitura osasungarriak sortzen ditu.**
- **Parte-hartzaile gehiagorengana iristeko beste komunikabide bat irekitzen da.**

# Zergatik lagundu

**Lortutako dirua elkarteak pazienteei eta haien senideei eskaintzen dizkien doako zerbitzuak finantzatzeko erabiliko da.**

**Laguntza psikologikoa, laguntza edo gizarte-laguntza, material ortopedikoaren mailegua, ibilaldi osasungarriak, tailerrak eta gainerako jarduerak.**

## **Gainera...**

- Gizartearen parte-hartzea handitzea jarduera fisiko solidario batean.
- Minbizia ikusgarri egitea, gaixotasunaren inguruko tabua ezabatzeko helburuarekin.
- Bizimodu osasuntsua sustatzea kirolarekin.

# Nola lagundu Elkarteari



# Goierri Kopa Trail

## Nola lagundu?

1. Partaide bakoitzeko euro bat eman ez elkarteari.
  - Kopa Trail Lasterketa hainbat frogez osatuta dagoenez, agian denak ez daude ados. Kasu horietan, korrikalariei izena emateko garaian dohaintza egiteko aukera proposa daiteke.
2. Minbiziaren Aurka Gipuzkoan-ek karpa bat jartzeko aukera izatea, bi aldeek interesgarritzat jotzen duten lasterketetan.
  - Bertan, umeei zuzendutako ikerketa-jokuak egitea baloratu daiteke.
3. Froga ezberdinetako kartel ofizialetan guk erreztutako logoa ipiniz
4. Zuen paparezko eta digitalezko medioetan azalduz.



**Minbiziaren Aurka**  
Gipuzkoan-en alde  
**En apoyo a Contra el**  
**Cáncer en Gipuzkoa**



# Goierri Kopa Trail

## Goierri Kopa Trail egutegia

1. Garin · Urtarrila
2. Ordizia · Otsaila
3. UZ Trail (Urretxu-Zumarraga) · Martxoa
4. Arriaran (Beasain) · Martxoa
5. Leharrei (Gabiria) · Apirila
6. Sanson (Segura-Zerain) · Maiatza
7. Kilómetro vertical Txindoki · Maiatza
8. Zaldibia · Maiatza
9. Axari Trail (Idiazabal) · Iraila
10. Korosti Trail (Legazpi) · Urria



## Minbiziaren Aurka

Gipuzkoan-en alde

**En apoyo a Contra el  
Cáncer en Gipuzkoa**

*Mila esker!*

## Entzuten zaitugu

📍 Avda. Barcelona, 6. 20014 Donostia  
[e.martinezdetrevino@contraelcancer.es](mailto:e.martinezdetrevino@contraelcancer.es)  
☎ 635 03 98 88 · 943 45 77 22

→ **Instagram:** [@contraelcancer.Gipuzkoa](https://www.instagram.com/contraelcancer.Gipuzkoa)

→ **X:** [@ContraCancerGP](https://twitter.com/ContraCancerGP)

→ **Facebook:** [contraelcancer.Gipuzkoa](https://www.facebook.com/contraelcancer.Gipuzkoa)